



Arartekoaren 2018S-130-18 Ebazpena, 2018ko abuztuaren 2koa; horren bidez, Santurtziko Udalari iradokitzen zaio OHZ arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketa abiarazteko, hain zuzen, menpekotasuna jasotzeko errekaruaren aplikazioa salbuesteko kausa objektibo gisa eta, horrez gain, eragindako familiari konpentsazio ekonomikoko neurriak ezartzeko aukera azter dezan.

Aurrekariak

1. Eragindako familia mendeko pertsona batek eta bere alaba zaintzaileak osatzen dute eta familia horrek adierazi zuen ez zegoela ados Santurtziko Udalak burututako jarduketarekin; zehazki, 2017ko ekitaldian, udalak udalerrri horretan bizi ziren etxebizitza gehitu zuen eta % 50eko errekaruarekin zergapetu zuen Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kuota likidoaren gainean.

Etxebizitzaren titularrak, hau da, 2017ko errekaru hori aplikatu zaion pertsonak 90 urte ditu eta 2015eko martxoaren 13an mendekotasun larria aitortu zitzaion, II. mailakoa, hain zuzen. Mendekotasun-maila hori behin betiko baieztatu zitzaion 2017ko maiatzaren 11n.

Familia kexagileak aitortu zuen Santurtziko etxebizitza ez zegoela egokituta eta, mendeko gurasoak hirugarren pertsonen babesa behar zuenez, eguneroko bizitzako oinarritzako atazak egin ahal izateko, hasiera batean, aita beste udalerrri batera joan zela beste senide batekin bizitzera. Hala eta guztiz ere, 2017ko urtarrilean, bere etxera itzuli zen eta modu iraunkorrean geratu zen bertan bizitzen, hau da, errekarua aplikatu zaion etxebizitza horretan, alaba batekin. Bi bizilagunak erroldatu ziren higiezin horretan 2017ko otsailaren 22an.

Eragindako familiak adierazi zuen 2017ko azaroan jakinarazi zitzaizola likidazio bat, zehazki, OHZren aukerako errekaruaren kontzeptuan; hala, errekurso bat aurkeztu zuten horren aurka etxebizitza horretan bizi zirelako 2017ko urtarriletik. Etxebizitza horretan benetan bizi zirela egiaztatze aldera, bertara bizitzera joan zirenetik etxebizitzan egondako argi- eta ur-kontsumoen kopia bat aurkeztu zuten.

Hala ere, toki erakunde horrek aurkeztutako errekursoa ezetsi zuen ez baitzegoen Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen udaleko ordenantza fiskalean ezarritako errekarua salbuesteko kasu horietako batean ere.

2. Arartekoak txosten bat eskatu zion Santurtziko Udalari; bertan, adierazi zuen beharrezkoa zela aztertzea, kasu bakoitzean, bidezkoa ote zen aukerako errekaru hori ezartzea eta aplikatzea. Halaber, babestu zuen komenigarria zela errekaru hori ordaintzeaz salbuestea, behintzat aldi baterako, mendeko pertsonak eta horien zaintzaileak.



3. Erantzunean, Santurtziko Udalak kronologikoki azaldu du burututako jarduketa. Laburbilduz, esan du, 2016ko ekainaren 30ean, behin-behinean onetsi egin zela OHZren ordenantza fiskal arautzailea 2017ko ekitaldirako. Era berean, tokiko erakunde horrek adierazi du, erakustaldi publikoko epean erreklamaziorik aurkeztu ez zenez, behin betiko onartutzat jo zela hasierako onespenez-erabakia eta, gainera, OHZren ordainagiriak kobratzen hasi zirela borondatezko epean 2017ko urriaren 2tik azaroaren 30era arte.

Santurtziko Udalak aitortu du, bai borondatezko ordainketa-epean, bai geroago, mota desberdinetako erreklamazioak jaso egin direla errekareru horren aplikazioari dagokionez eta horiek ebatzi egin direla zerga hau arautzen duen ordenantza fiskalean onetsitako aurreikuspen zehatzetan oinarrituz.

Azkenik, tokiko erakunde horrek adierazi du Ogasun eta Sustapen Ekonomikoko Sailak aurkeztutako erreklamazioak aztertu egin dituela, egokia den kasuetan ordenantza fiskalaren aldaketa egite aldera eta, kasu egoki horietako bat da, hain zuzen ere, erakunde honek proposatutakoa. Hala eta guztiz ere, onartzen da ezin izan dela egokitzapen hori izapidetu 2018ko ekitaldirako, hain zuzen, arrazoi honengatik: *“Zerga Ordenantza aldatzeko prozesu zorrotza jarraitu behar da etea epeak bete. Azken horiek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak luzatu dituenenez...”*

Gogoetak

1. 2016ko maiatzaren 24an argitaratu zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (BAO) Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko maiatzaren 18ko 4/2016 Foru Araua.

Zehazki, arauaren 10.8. artikulua aurreikusten du posible dela aukerako errekareru bat aplikatzea OHZren kuota likidoaren gainean termino hauetan:

“Ondasun higiezinak bizitegi-erabilera dutenean, eta subjektu pasiboaren edo hirugarrenen ohiko egoitza ez direnean –hirugarrenen kasuan errentamenduz edo lagapen bidez–, udalek 100eko 50erainoko errekareru ezarri dezakete zergaren kuota likidoaren gainean. Errekareru zerga honen subjektu pasiboari exijituko zaie, haren sortzapena zerga sortzen den une berean gertatuko da, eta urtero likidatuko da, kuotarekin batera.

Bizitegi-erabilera duen ondasun higiezinak hartuko da, hura kokaturik dagoen udalerriko erroldan egiaztatuta badago bertan bizi den/direnen ohiko bizilekua dela Ondasun Higiezinaren Zergaren sortzapen datan.

Errekareru honen aplikazioaren ondorioetarako, etxebizitzaren eranskinak barruan sartuko dira finka erregistratutako bakarrik osatzen badute.



Aurrekoa gora behera, udalek beren ordenantza fiskaletan ezarri dezakete zer kasutan ez den aplikatuko apartatu honetan aipatzen den erreargua”.

Hau da, Foru Arauak tokiko erakundeak gaitzen ditu, egoki iruditzen bazaie, titularraren edo bizilagunaren ohiko bizilekua ez den etxebizitza baten okupazio oro zergapetzeko, hain zuzen ere, % 50era arteko erreargu batekin OHZren kuota likidoaren gainean. Hala ere, horretarako, nahitaezkoa da aurreikuspen hori zerga arautzen duen ordenantza fiskalean beren-beregi jasotzea eta BAOn argitaratzea.

Santurtziko Udalak azkar gehitu zituen OHZ arautzen duen ordenantza fiskalera maiatzaren 18ko 4/2016 Foru Arauak jasotako aurreikuspen berriak, bai aginduzkoak, bai aukerakoak; izan ere, ordenantza zehatz honetan, aldaketen izapidetzea atera zen 2017rako gainerako ordenantza fiskalen aldaketari buruzko espedientetik eta, horrela, izapidetzea denboran aurreratu zen. Horri esker, horren inguruko eztabaida, onespena eta argitalpena aurreratu eta azkartu egin ziren.

Gainerako ordenantza fiskalak aldatzeko espedienteak ohiko epearen barruan izapidetu zen, hau da, 2016ko azken lauhilekoan.

Adierazi den bezala, 2016ko ekainaren 30ean onetsi zen hasiera batean eta 2016ko uztailaren 7ko BAOn argitaratu zen onespene hori. Une horretatik aurrera, ordenantza fiskal honen erakustaldi publikoko epea ireki zen, 30 eguneko epean, interesdunek egoki zeritzen erreklamazioak, alegazioak edo iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Prozeduraren fase horretan alegaziorik aurkeztu ezenez, hasiera batean onetsitako erabakia behin betikotzat jo zen eta aldaketa 2016ko irailaren 19ko BAOn argitaratu zen.

2. Santurtzin OHZ arautzen duen ordenantza fiskalak 9.7. artikuluan aztertzen du aukerako erreargu hori honela:

“Bizitegi-erabilera duten ondasun higiezinaren hautazko erreargua, bizitegia ez izateagatik.

a) Ondasun higiezinak bizitegi-erabilera dutenean, eta subjektu pasiboaren edo hirugarrenen ohiko egoitza ez direnean –hirugarrenen kasuan errentamenduz edo lagapen bidez–, %50eko erreargua izango dute zergaren kuota likidoaren gainean.

Etxebizitzaren eranskinak barruan sartuko dira finka erregistral bakarra osatzen badute.

Errearguaren subjektu pasiboak Zerga honen subjektu pasiboak izango dira. Errearguaren sortzapena zerga sortzen den une berean gertatuko da, eta urtero likidatuko da, kuotarekin batera.





Bizitegi-erabilera duen ondasun higiezintzat hartuko da, hura kokaturik dagoen udalerriko erroldan egiaztatuta badago bertan bizi den/direnen ohiko bizilekua dela Ondasun Higiezinen Zergaren sortzapen datan.

b) Deskribatutako errekarua ez da hurrengo kasuetan aplikatuko:

- Ostatatze, ostatu, hostal jardueri atxikitakoak.*
- Bere helburuen artean ondasun higiezina errenta ematearena duen erakunde publiko baten esku jarritakoak.*
- Zahar etxeetan erroldatutako pertsonen titulartasunekoak diren etxebizitzak.*
- Zerga sortu den momentuaren aurreko urtean eskualdatu diren etxebizitzak.*
- Udalaren eta haren erakunde autonomoen jabetzako etxebizitzak.*

3. Titularraren ohiko egoitza ez diren etxebizitzen gaineko zergan errekarua bat ezartzeko gaitasuna gure antolamendu juridikoan jabetzari esleitzen zaion gizarte-eginkizunean oinarritzen da (Espainiako Konstituzioaren 33. artikulua). Hau da, gure antolamendu juridikoak ez du jabetzarako eskubidea eskubide absolutu gisa eratzten; izan ere, aitortzen du hori mugatzen duela jabarikoak diren ondasunen kategoria bakoitzak bete behar duen xedeak edo gizarte-erabilgarritasunak. Jabetza-eskubidearen gizarte-eginkizun horrek, eskubide horren kanpoko muga gisa funtzionatu ez ezik, aldi berean, eskubide beraren osagaia ere bada.

4. Errekargu hori aplikatzeari dagokionez, erakunde honek uste du kasu bakoitzean aztertu behar dela hori aplikatzea bidezkoa den. Hain zuzen ere, errekarua bidezkoa izango da arauak ezarritako xedea betetzen duen neurrian.

Errekargu horren xedea herritarrengan jokaera zehatz bat gaitzestea da: geldirik dagoen higiezinen ondarea edukitzea, etxebizitza bat eskuratzea gizartearen sektore askorentzat zaila denean.

Konstituzio Auzitegiaren Plenoak, 2017ko uztailaren 18ko Autoan, jotzen du zilegi dela OHZn errekarua gehigarri bat ezartzea subjektu pasiboaren edo hirugarren baten ohiko egoitza ez diren etxebizitza horien gainean eta, hortaz, erabaki hau ez da gaitasun ekonomikoko eta berdintasuneko printzipioen aurkakoa.

Ondasun bat ez erabiltzeak edo normalean ez erabiltzeak erakusten du, Konstituzio Auzitegiak aitortu duenaren arabera, benetako aberastasuna edo aberastasun potentziala dagoela eta hori da, hain zuzen ere, karga berezi hori justifikatzen duena eta, horrekin, gaitasun ekonomikoko printzipioarekiko koherentzia ere bai. Halaber, Konstituzio Auzitegiak azpimarratu egin du ez direla egoera homogeenak etxebizitza bat ohiko egoitza gisa erabiltzen duenarena (berezkoa edo alokairuaren bidez edo beste tituluren batekin lagatzen dion hirugarren batena) eta hori egiten ez duenarena, hau da, ohiko egoitza gisa





erabiltzen ez duenarena. Beraz, etxebizitzaren erabilera-maila edo mota alderdi nabarmen bat da gastu publikoak ordaintzeko ekarpena ezartze aldera, hain zuzen ere, higiezinaren titulartasuna zergapetzen duen zerga baten bidez.

Horrenbestez, erreargua ikuspegi horretatik aztertu egin behar da.

Hortaz, etxebizitza bat hutsik dagoela ezartzeko orduan, ezin da bakarrik kontuan hartu data zehatz batean, hau da, zergaren sortzapen-egunean (urtarrilak 1) higiezinaren erroldatutako bizilagunik ez egotea. Higiezin bat hutsik egoteak, hau da, etxebizitza bat bizileku moduan ez erabiltzeak, halabeharrez dakar etxebizitza horrek modu jarraituan eta denboraldi batez bizitegi-erabilerarik ez duela egiaztatzea, eta gainera, gizarteak objektiboki gaitzestea. Horrenbestez, ez luke aberastasun potentzial handiagorik egiaztatuko eta, hortaz, merkatu librean duela urte batzuk alokatutako higiezin baten titularrari zergapetu beharreko gaitasun ekonomiko handiagorik ere ez, hain zuzen ere, soilik alokairu-kontratuen segida behar bezala lotu ez delako. Zalantzagabea ematen du, etxebizitza egun batzuk alokatu gabe egon bada, denbora-tarte horren barruan urtarrilaren 1a egon arren, aurretik eta geroago alokairu-kontratuak sinatu egin badira etxebizitza horretan, ez litzatekeela erreargurik ezarri beharko horren gainean.

5. Mendeko edo adineko pertsonak egoitzetara, zaintzapeko pisuetara edo senideren baten (normalean seme-alabak) bizilekura eramatearekin batera benetan bizi diren lekuan erroldatu ohi dira. Hori horrela egiten da pertsona bat benetan bizi den lekuan erroldatuta behar delako eta, gainera, datu horrek eragin zuzena eta berehalakoa duelako mendeko pertsonentzat, zehazki, bizilekuaren arabera zehazten delako mediku-esleipena.

Kontuan hartu beharra dago, EAEn, mendekotasuna duten pertsona gehienek ez dutela egoitza-plazarik okupatzen eta, joaten direnean, ez dira boluntarioki joaten bere etxebizitzatik, baizik eta inguruabarrek behartzen dituztelako, hau da, batzuetan etxean bertan eman ezin zaizkien zaintzak eta arreta behar dituztelako; etxea irisgarria ez delako edo bere familia-babeseko sarea udalerrri beren bizi ez delako, besteak beste.

Bestalde, pertsonak behin eta berriro adierazi egin dute ahalik eta denbora gehien geratu nahi direla bere etxean, bizitza osoan zehar izan duten erreferentziako gizarte-sarea mantenduz; horregatik, lehentasunezkoa da pertsona horien babes-zerbitzuak aztertzerakoan eta ezartzerakoan, mendekotasun progresiboa eta bizi-garapena aintzat hartzea. Hori dela-eta, batzuetan, zaintzailea joaten da mendeko pertsonaren etxera bizitzera, egoitza batera joatea saihesteko eta, horrela, pertsona horiek egoitza-plaza bat okupatzekotan ordaindu beharreko gastu publiko nabarmena ere ekiditen da.

Halaber, kontuan hartu behar da Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak prestazioen katalogo bat ezarri egin duela mendetasun-





egoeran dauden pertsoneri arreta emateko; horretan, zerbitzuek lehentasuna dute prestazio ekonomikoekiko. Herri-administrazioek zerbitzu horiek Gizarte Zerbitzuaren sarearen eskaintza publikoaren bidez eman behar dituzte, zentro eta zerbitzu publikoen bidez edo behar bezala egiaztatutako itundutako zentro eta zerbitzu pribatuen bidez.

Mendetasuna duen eta bere etxean arreta jasotzen jarraitu nahi duen pertsonak prestazio ekonomiko bat jaso dezake zaintzaile ez-profesionalen arreta izateko, betiere bizikidetzeta eta etxebizitzaren bizigarritasun baldintza egokiak betetzen badira eta Banakako Arreta Programak hori ezartzen badu.

Familia-inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomiko hau zaintzaile ez-profesionalak ematen duen arretak eragindako gastuak ordaintzen laguntzera dago bideratuta, betiere hori jasotzeko ezarritako baldintzak betetzen badira. Hala, ez-ohikoa denez, printzipioz, bateraezina da Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 15. artikuluan zerrendatutako "Zerbitzuen Katalogoko" beste edozein zerbitzu motarekin, "Telelaguntzako Zerbitzuarekin" izan ezik.

Prestazio hori eskuratzeko, hainbat baldintza betetzea eskatzen da, besteak beste:

- Onuraduna familia barruan zaindua izatea.
- Zaintzailea mendetasun egoera duen pertsonarekin, etxebizitza berean, bizitzea.
- Banakako Arreta Programak prestazioa egokia den ala ez zehaztea.

Gure ustez, Espainiako Konstituzioaren 33.2 artikulua jabetzari ezartzen dion gizarte-eginkizunaren kontrakoa da pertsoneri bereziki tasa ezartzea euren titulartasuneko etxebizitza 2012ko urtarrilaren 1ean ez delako alokatuta edo okupatuta egon baldin eta, kexa honek hizpide duen kasuan gertatzen den moduan, titularra, guztiz justifika daitekeen denbora tarte batean izan ezik, higiezin horretan bizi izan dela berma badaiteke.

Mendeko pertsoneri arreta eskaintzearen ondorioz ezin da zabor-tasa baten aplikazioaren gatazka sortu, hala balitz zerga handiagoa ezarriko balitzaioke bere inguruko mendeko senide bati arreta eskaintzearen karga bere gain hartzen duenari.

Ezin dugu ahaztu nagusiekiko arreta onenaren ikuspuntutik adituek ezagutzen duten inguruan mantentzea gomendatzen dutela, egoitza batean sartzea ekidinez. Hala eta guztiz ere, hori ez da posible izango etengabeko arreta bere gain hartzen duten senideentzako aldeko neurriak jasotzen ez badira.



6. Santurtzin 2017rako OHZ arautzen zuen ordenantza fiskalak ez zuen mendekotasuna aurreikusten errekaruaz salbuesteko kausa gisa. Aurreikuspen hori ez zen jaso 2018rako ordenantzaren ere ez. Erakunde honi ez dagokio korporazio horrek hasiera batean ordenantza fiskalean gehitzea adostutako salbuespen-kasuen konparazio-azterketa egitea. Hala eta guztiz ere, bada Arartekoaren eskumena gizarte-justiziaren eremuan eragin nabarmena duten eta, kasu honetan, herri-administrazioek mendeko pertsonari eman behar dieten premiazko arretaren aurka doazen omisioen berri ematea.
7. Horrenbestez, erakunde honen ustez, ez da zigortu behar, errekaru baten ordainarazpenaren bidez, mendekotasun-egoeran dagoen pertsona bati senideen etxean arretoa ematea. Mendekotasuna duen pertsonaren jabetzakoa den etxebizitzatik kanpo emandako zaintza horrek justifikatzen du higiezina ez okupatzea. Gainera, kasu zehatz honetan, egiaztatzen da mendeko pertsona Santurtziko udalerrian duen bere titulartasuneko etxebizitzara joan zela bizitzera 2017ko urtarrilean.
8. Santurtziko Udalak onartzen du ezin izan dela ordenantzaren egokitzapena izapidetu 2018ko ekitaldirako, hain zuzen, arrazoi honengatik: *“Zerga Ordenantza aldatzeko prozesu zorrotza jarraitu behar da eta epeak bete. Azken horiek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak luzatu ditu”*.

Egia da 39/2015 Legea indarrean sartzearekin batera, udal-ordenantzen izapidetzean nabarmen eragiten duten aldatetarako egin direla. Aurrekoa gorabehera, arauak berak bazekien berritasun nabarmenak eragingo zituela eta, horregatik, *vacatio legis* deritzon epe luze bat zehaztu zuen herri-administrazioek berritasunak aztertu eta denbora nahikoarekin kontuan hartzeko. Hala, 39/2015 Legearen zazpigarren azken xedapenak hauxe adierazten zuen: *“Lege hau indarrean sartuko da Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta urtebetera”*.
9. Aitortu behar da OHZren kuotaren gaineko errekaruaren aurreikuspen hori ez dela berria. Izan ere, Bizkaiko Lurralde Historikoan orain indarrean dagoenaren aurreko araudiak ere jasotzen zuen xede horretarako gaikuntza bat. Hala ere, ez zen inoiz aplikatu, hain zuzen ere, errekarua aplikatzeko baldintzak zehaztu ez zirelako.

Bizkaian eta Araban foru-legegileak hautatutako aukera horren aurretik, 2012an, Gipuzkoako Lurralde Historikoan antzeko erabaki bat hartu zen, hau da, uztailaren 4ko 4/2012 Foru Araua onetsi zen unean. Lurralde historiko horretan gizarte-eztabaida handia sortu zen eta, horri esker, errekaru horretan objektiboak diren salbuespenen zerrenda luzea sortu ahal izan da.
10. Santurtziko Udalak, oharkabean izan bada ere, hasiera batean, babesik gabe utzi ditu biztanleriaren sektore ahul baten interesak, hau da, mendekotasuna duten pertsonen eta familia zainzaileen interesak. Hala ere, erabakiak kalteak



eragin ditu. Gainera, geroago, tokiko erakunde horrek ez du arazoaren konponbidea bideratu. Errekurtso-fasean, ez dira familia horien asmoak edo, behintzat, familia kexagileak adierazitako asmoa aintzat hartu eta 2018rako ordenantza fiskalean ez da defizit hori zuzendu. Horrenbestez, Arartekoak jakinarazi egin du tokiko erakunde horren jarduketarekin ezin izan zaiela behar bezalako arretarik eman mendeko pertsoneri eta horien zaintzaileei; hortaz, familia horiek ekonomikoki konpentsatzea ahalbidetzen duten bideak artikulatu behar dira.

11. Erakunde honek euskal herri-administrazio guztiei gogorarazi behar die herritarren demandei behar bezala erantzun behar dietela, are gehiago, demanda horiek legean babestuta eta beren-beregi ezarrita daudenean.

Horregatik guztiagatik, iradokizun hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

IRADOKIZUNA

Santurtziko Udalak OHZ arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketa abiarazi beharko luke, hain zuzen, mendekotasuna jasotzeko errekarguaren aplikazioa salbuesteko kausa objektibo gisa eta, horrez gain, eragindako familiari konpentsazio ekonomikoko neurriak ezartzeko aukera aztertu.

